

Eskualde-mailako integrazio ekonomikoa eta egitura aldeanitzaren barrukoa, garapenerako estrategia modura

Eduardo Bidaurrezaga Aurre
EHUko irakaslea

Munduratzeko bidean omen dagoen nazioarte-mailako ekonomian, gero eta ugariagoak dira prozesu horren norabidearen inguruko eztabaidak, alde batetik, fenomeno honek sortzen dituen ondorioen gainekoak, eta bestetik, “erregionalismoa *versus* multilateralismoa” dikotomiari buruzkoak. Maila teoriko huts batetik urrunduta, aipatutako eztabaiden garrantzia azpimarratu beharra dago, gehienbat munduko ekonomia desfaboratuen ikuspegitik, horretan oinarritutako proposamenetan egon baitaiteke euren garapen-estrategien arrakastarako gakoa.

In international economics which is said to be globalized, the debate about the way this process is undertaken is widely spreading. On one hand, the issue is related to the consequences of the process itself. On the other, it has to be with the dichotomy between regionalism versus multilateralism. Far from the merely theoretical point of view, it has to be underlined the importance of this debate, above all for the poorest in the world economy, since the success to their development strategies could be incorporated in the proposals based on it.

Globalizazioaren izaera, ezaugarri, eta ondorioen inguruko eztabaidak oso era nabarmenean ugaritu dira azken urteetan ekonomiaren alorreko literatura espezializatuan¹. Gaiari buruzko materialen ugaritze honek eta bere inguruan sortutako interes hazkorrak, bere kalte eta onuren gaineko iritziek, edota munduratzeko-prozesu honek hartzen omen duen norabideak, gaur egun dauden erregio-mailako ekimen eta nazioarteko erakunde aldeanitzen abiapuntutik hasita, testuinguru bat sortzen dute non fenomeno honen inguruko azterketa oso nahasi bihurtzen den. Izan ere, askotan ematen du gai honetaz argitaratutako bibliografia sakon jorratu eta gero, ia edozein interpretazio edo analisi ontzat eman daitekeela. Hala ere, azkenaldian orokortutako estereotipoek interpretazio jakin baten alde egiten dute argiro, multilateralismoaren eskutik datorren kapitalismoaren nazioarteratzeko joera hau baikortasunez ikusiz, eta zientzia ekonomikoaren hastapen konbentzionalekin bat eginez.

Gehiago nagusia biltzen duen joera honen aurka joanik, lan honek agerian utzi nahi du ekonomia munduratzeko hartzen ari den bideak oso ekarpen eskasa egin diezaiekeela herrialderik txiroenei orokorrean, besteak beste, Sahara azpiko Afrikakoei. Era berean, honen aurrikuspena egitea oso zaila den arren, gaur egun erregionalismoa helburu gisa ala multilateralismoranzko tarteko aro gisa ulertu behar ote dugun, adituen ustez ez dago batere garbi. Edozein modutan ere, nazioarteko zenbait erakunde aldeanitzek ekonomia ahulenen kaltetan ezarritako joko-arauen testuinguruan, ez da harrizkeoa herrialde kaltetuetako gobernu-agintariek nahiago izatea eskualde-mailako integrazioaren alde apustu egitea, bide hori garapenerako estrategia modura onetsiz, eta euren interesak nazioarteko foroetan hobeto defendatzeko tresna gisa hartuta.

1. Globalizazioa, ala polarizazioa eta bazterketa?

Azkenaldian, sarritan esan zaigu *globalizazio* edo *munduratzeko* berben atzean zenbait ideia eta irudi ezkututzen direla; besteak beste, liberalizazio eta desaraiketaren ondorioz, nazioarteko ekonomia-fluxuak izugarri hazi direla merkatu nagusietan, eta horrek gure historian aurrekaririk gabeko gertaera berezi bat sorrarazi duela ekonomia eta pertsona guztien mesedetan, ustez. Aldiz, aditu ugari azpimarratu duen eran, harreman kapitalisten liberalizazio- eta hedapen-prozesu hau jorratzean ezinbestekoa da ñabardura batzuk sartzea, errealitatea ez baita sarritan aditzera ematen zaiguna bezain sinplea, ezta homogeneotasunez bete ere.

Baina, errealitate horren zenbait elementu alde batera utzita, eta liberalizazioarako eta nazioarteko fluxu ekonomikoaren hazkunderako joera orokortzat harturik, begien bistakoa da hedapen hori ez dela gertatu modu homogeneoan, ez duela mundu-mailako ekonomia guztien alde jokatu, ezta horien barruko gizarte-talde guztien mesedetan ere. Horrexegatik, hain zuzen, eta globalizazioaren inguruko eztabaidak semantika-ariketa bihurtu nahi izan barik, litekeena da gutxienez zalan-

1. Lan hau EHUK finantzaturako "Afrikako Hegoaldeko gizarte mugimenduen gaineko nazioarteko lankidetzaren eragina Gerra Hotzaren osteko aroan: bake eraikuntza, demokratizazioa eta garapena" izenburuko ikerketa-proiektuaren testuinguruan burututa dago (1/UPV 00111.323-H-14060/2001).

tzan jartzea kontzeptu honen egokitasuna azken hamarkadetan esperimentatutako nazioarteratze-prozesuaren deskribapena egiterakoan, berau disperekotasunaren eta polarizazioaren adierazle gisa errazago uler baitaiteke.

Hau da, nahiz eta erraz demostratzekoa izan nazioarteko kapital eta merkanztzien merkatuek, garbiketa- eta desarauketa-prozesu baten ondorioz, beraien fluxuetan hedapen argia dutela, joera horren eragina oso ezberdina izan da zonaldearen arabera. Efektu horiek herrialde jakin batzuetan kontzentratuta geratu dira, eta garapen-bideko ekonomia gehienak dinamika horretatik at utzi dituzte. Izan ere, nazioarteko kapital zein ondasun eta zerbitzuen fluxu gehienak EEBB, Europako Batasuna, Japonia, eta Asiako ekialdeko Industrializazio Berriko Herrialdeen eskuetan metatzen dira, eta gure planetako beste zonalde batzuei mundu-mailako harreman ekonomikoetan gero eta pisu gutxiago dagokie. Horren ondorioz, aipatutako liberalizatorako joerak eragindako bazterketaren biktima bihurtzen dira, joera horrek, ustez, munduko ekonomiaren barruko herrialde ahulenen integrazioa bultzatu eta horren abantailen aprobetxamendua sustatzen omen duen arren.

Zentzu honetan, kasurik esanguratsuenetako bat Sahara azpiko Afrika da. Garai batean, eremu geografiko honen egoera ekonomikoa esplotazio terminoetan aztertzen zen, Lanaren Nazioarteko Zatiketaren eskemaren barruan zonalde honek betetzen zuen lekuagatik, eta honi lotuta zeuden potentzia europarrek egiten zuten herrialde hauen baliabide naturalen gainustiaketatik. Horrela, egoera horrek agerian uzten zuen, oso baldintza gogorretan bazen ere, herrialde hauek garai hartan nazioarteko harreman ekonomikoetan parte hartzen zutela, bederen. Gaur egun, ordea, kontinente honetako eskualde batzuk are egoera txarragoan daude, esandako fluxu ekonomiko horien dinamikatik ia erabat baztertuta geratu dira eta. Sahara azpiko Afrikak pairatzen duen muturreko egoera honek, baita garapen-bideko beste ekonomiekin alderatuz ere, bidea eman du zenbait aditu —Hirugarren Munduarekin nahikorik ez antza— “Laugarren Mundua” kontzeptua finkatzeko beharrean sentitzeko (Founou-Tshuigoua, 1995).

Deskribatutako errealitate horren adierazle argiak diren hainbat datu erakuts daitezke. BPG per capitaren bilakaera azken hamarkadetan oso adierazgarria da alde honetatik: 70eko hamarkadaren erdian oso maila baxuetatik abiatuta, beherako joera jarraikorra nozitu da 90eko hamarkadaren azken urteetara arte. Datu hauek are deigarriago bihurtzen dira mundu-mailako batezbestekoarekin edo herrialde industrializatuenarekin konparatuz gero².

PNUD delakoak (Nazio Batuetako Garapenerako Programak), urtero, giza garapenaren adierazlearen arabera, argitaratzen duen sailkapenari erreparatuta, zera ikus daiteke: rankingaren azken 28 postuak Sahara azpiko herrialdeek betetzen dituztela, eta “giza garapen baxuko” kategoriaren barruan dauden 36tik, 29 zonalde horri dagozkiola (PNUD, 2001).

2. Sahara azpiko Afrikaren BPG per capitaren bilakaera 1975etik 1997ra 671\$etatik 518\$ra baten, munduko batezbestekoa 2.888tik 3.610era pasatu zen, eta herrialde industrializatuak 12.589tik 19.283ra (PNUD, 1999).

Merkataritza- eta kapital-fluxuen kasuan, esparru geografiko honen pisu-galerarako joera garbia ere ikusten da, mundu-mailako totalarekiko bere esportazioen portzentaiak eta bere atzerriko inbertsio zuzenaren (AIZ) sarrera-stockak bilakaera beherakor argia izan baitute. Berriro ere, iparraldeko herrialde industrializatuekin eta Asiako ekialdekoekin alderatuz gero, aipatutako Sahara azpiko herrialdeen joera are nabarmenago ikusten da³.

Ondasun eta zerbitzuen merkatuari dagokionez, truke-erlazio errealairen gainbehera, eta produktu sintetikoek nola ordezkatu dituzten lehengai naturalak ikusita —jakinda esportazio afrikar gehienak lehenengo sektorekoak direla—, ez da ustekabekoa Sahara azpiko Afrikak azken bi hamarkadetan pairatutako beherakada iparraldeko herrialde industrializatuen inportazioetan, batez ere Asiako ekialdeko zenbait ekonomiaren mesedetan (UNCTAD, 1998). Orainsu aipatutako azpikontinentearen AIZaren jeitsierak ere begi-bistan uzten du eremu geografiko horren gero eta pisu-galera handiagoa munduko ekonomian.

Baina nazioarteko harreman ekonomikoen alorrean, planetaren zenbait ingururen marjinalizazioarako joera agerian uzteaz gain, ez dugu ahaztu behar beste bazterketa-prozesu bat ere indarrean dagoela hainbat ekonomiatan, industrializatu, garapen-bideko, zein trantsizioetan. Horren adierazle nagusiak ondoko hauek dira: babes sozialaren krisialdia, pobrezia-poltsen sorrera eta hazkundera, gizarte-talde ahulenen bizi-baldintzen narriadura eta kutsu neoliberalerako politiken implementazioari lotutako disperekotasun ekonomiko eta sozialen gorakada. Eta, hain zuzen ere, egoera honetaz ari da PNUD izeneko erakundera (1997), globalizazio izenarekin ezagutzen dugun fenomeno hori ez dela zertan gauzatu batuketa positiboko ariketa modura baieztatzen duenean, hau da, irabazleak eta galtzaileak sortzen dituen prozesu gisa ulertu beharko litzatekeela dioenean.

Eta desfaboratuen aurkako bazterketa- eta marjinalizazio-dinamika honek gizarte-talde jakin batzuen ezaugarritzea ahalbideratu du, uholde merkatuzale honen biktima nagusizat hartuta. Honen inguruko kasuistika tokian tokikoa bada ere, eta herrialdearen araberrako berezitasunak egon arren (arrazza, erlijio, kultura eta abarren arabera), orokorrean emakumezkoak, umeak eta hirugarren adineko pertsonak irudika daitezke talderik zaugarrienen artean, gizarte-babeserako sistemen desegituraketa hazkorraren garai honetan.

Erraz imajina daitekeen legez, bi joera polarizatzaile hauen eraginez (herrialdearen eta gizarte-taldearen artekoak), disperekotasunen igoera argia gertatu da azkenaldian mundu-mailan, aipatutako ekonomia-politikako neurriak inplimentatzen joan diren heinean. Eta globalizazioak eskaintzen omen dituen onuretatik, zokoratzeko eta bazterketarako dinamikak eraman ditu zenbait aditu zera adieraz-

3. 1950 eta 1999ren arteko tartea hartuta, Sahara azpiko Afrikaren esportazioen proportzioa munduko guztizkoarekiko %3,3tik %0.8ra pasatu bazen, herrialde industrializatuen bilakaera %60.7tik %67.7rako izan zen, eta Asiako ekialdekoena %11.9tik %18.59rako. Atzerriko inbertsio zuzenari dagokionez, mundu-mailako totalarekiko sarrera-stockaren portzentaia kontinente afrikarrean 1980-1999 tartean %2.62tik %1.51ra igaro bazen, iparraldeko ekonomia industrializatuen batezbestekoa %60.89tik %66.67ra, eta Asiako ekialdekoena %28.39tik %18.75era pasatu zen (UNCTAD, 1999, 2001).

tera: mundu-mailako apartheidaren sendotzen duen sistema ekonomiko eta sozial hau guztiz onartezina dela (Sutcliffe, 1998; Tsie, 2000).

Ekonomia industrializatueta aplikatu diren politikei dagokionez, azpimarratzekoa da OCDE delakoaren barnean zabaldu den joera orokorraren adibiderik nabarmenenak errentari dagoz-kion desberdintasunen kasuan, batez ere, 80ko hamarkadan zehar eta 90ekoaren hasieran, EEBB eta Britainia Handia direla. Garapen-bideko ekonomiei erreparaturik, Latinoamerikan doikuntza-politiken ondorioak, disparekotasunen gorakadaren aldetik, oso nabarmenak izan ziren gehienbat 80ko hamarkadan; kasurik adierazgarrien artean Argentina, Brasil, Venezuela, eta Mexiko aipatu behar dira (UNCTAD, 1997; PNUD, 1999).

Kontinente afrikarrean ere, politika merkatuzalez osatutako olatu berri honek bere ondorioak izan ditu gizarte-mailako polarizazio-terminoetan. Horrela, Gini indizearen denbora-serieen datu modura eskuragarri dauden datu apurrei begira, azpimarratzekoa litzateke Tanzanian, Ugandan, Nigerian, Kenyan eta Etiopian dagoen barneko desberdintasun ekonomiko eta sozialen hazkundera (UNCTAD, 1997). Halaber, trantsizio-bideko ekonomien esperientzia oso deigarria da errentaren banaketaren gaiztotzeari dagokionez, azken urteetan hauetako batzuek disparekotasunean inoiz eman den hazkunderik handiena bizi izan baitute, Errusia eta Ukrainako datuen bilakaera bereziki gailentzekoa izanik (PNUD, 1999).

2. Erregionalismoa *versus* globalizazioa eta multilateralismoa

Azken hamarkadetan estatu-nazio bakoitzaren ekonomiek nazioararteratze-prozesu zabal baterako joera bizi izan dutela, eta horren ondorioz euren gobernuen autonomia eta erabakitze ahalmenearen narriadura eman dela, ukazina da. Baina liberalizazio ekonomikora eta nazioarteko fluxuen hedapenera eramaten duen dinamika honek bi motatako mugimenduak ezagutu ditu: lehenengoa, izaera aldeanitzekoa, nazioarte-mailako zenbait akordio eta erakundetan oinarrituta, besteak beste, GATT delakoa, Merkataritzarako Munduko Erakundea (MME), Munduko Bankua (MB), edota Nazioarteko Moneta Fondoa (NMF) aipa daitezkeelarik; bigarrena, eskualde-mailako hainbat integrazio-proiektutan gauzatu da, herrialde industrializatu artean alde batetik, garapen-bidekoen artean, bestetik, eta batzuen eta besteen artean.

Era honetan, bi joera horien bizikidetzak eztabaida luze eta mamitsu baterako bidea zabaltzen du; alegia, galdera nagusia litzateke ea berauek dinamika desberdineko bi osagai diren, ala helmuga bererako norabidea hartuta duten bi errealitate, edo txanpon bereko bi aldeak. Egia da 90eko hamarkada oso esanguratsua izan dela erregionalismoari bultzada berri bat emateko, eskualde-mailako zenbait integrazio-proiektu zaharren berpizteak eta berri batzuen agerpenak agerian utzi dutenez. Hala ere, proiektuok hartzen duten itxura eta definitzen dituzten helburuak ez dira homogeneotasun handikoak, eta, lehen esan bezala, etorkizunean har dezaketen norabidea ere ez da erraz aurriztekoa. Hori dela eta, adituen arteko eztabaida bat zabaldu da. Eztabaidagai dagoena honako hau da: erregionalismoak zenbateraino ahalbideratzen duen globalizazio ekonomikoaren azken faseen gauzatzea, munduratzeko-prozesuarekiko osagarri gisara

jokatuz; ala, horren garapenerako oztopo bihurtzen den, orain arteko globalizazioaren alternatibatzat hartuta.

Orain aipatutako erakunde aldeanitzek bultzatutako desarauketa eta nazioarteko fluxu ekonomikoen liberalizazioa benetan adierazgarria izan da azken boladan; alde horretatik gehien gailentzen diren merkatuak kapitalena eta ondasun eta zerbitzuena dira. Horrek, ordea, ez du esan nahi errealitate hau globalizazio eta multilateralismoaren arabera soilik interpreta daitekeenik, ezta mundua apurka-apurka hurbiltzen ari den jomuga horixe denik.

Alegia, planetaren alde batera eta bestera erregionalismoaren alorrean koka daitezkeen hainbat integrazio-proiektuk agerian uzten dute eskualde-mailako taldeen osaketa errealitate heldu eta sendoa dela. Baina, integrazio erregionalerako joera ukaezinezko egitatetzat hartuta ere, hau guztia mundu-mailako erabateko liberalizaziorantzko tarteko etapa baten adierazlea besterik ez dela baieztatzen duten ahotsak ugariak dira. Are gehiago, argudio horren defendatzaileek gaineratzen dute errealitatea interpretazio horrekin bat etorriko ez balitz, mezua zera litzatekeela: hori ez bada talde erregionalek gaur egun hartuta duten norabidea, behintzat izan beharko litzateke.

Era horretan, adituen arteko eztabaida bi maila desberdinetan planteatzen da, ondoko galderen arabera: integrazio ekonomiko erregionalak azkenaldian ezagututako bultzada abiapuntutzat hartuta, erregionalismoa eta multilateralismoa dinamika bateragarri ala kontraesankor gisa ulertu beharko genituzke? eta nolabai-teko bateraezintasunik emango balitz, integrazio-proiektu zaharrak eraldatu egin beharko liriateke, eta berriak eraiki, diskriminazioa errefusatzen duen printzipioan oinarriturik, mundu-mailako merkataritza-harremanen erabateko liberalizazioa ahalbideratzeko?

2.1. Gaur egungo erregionalismoa multilateralismorantz al doa?

Lehenengo inkognita honek planteatzen du ea talde erregionalen sorrera jomuga gisara interpretatu behar den, ala globalizaziorako bidean aurkitzen dugun tarteko epealdi moduan. Gaiari helduta, eta tesirik baikorrenen aurka, eskualde-mailako integrazio-proiektu hauek definizioz GATT-OMC delakoaren akordio eta arautegi aldeanitzen filosofiaren aurka jotzen dutela era desberdinetan defendagarria litzateke, batez ere, nazio faboratuenaren klausulari dagokionean.

Horrela, beraz, nahiz eta GATTen inguruko negoziaketa-txandetan, edo bere ordezkoa den MMEren gaur egungo lanean, mezu nagusia bereizkeriaren aurkako izan, XXIV. artikuluaen interpretazioari eta inplementazioari lotutako arazoek, "hizki txikietan" egindako akordioen salbuespenen gaineko arauketak, eta zenbait kasu tratatzerakoan erabilitako anbiguotasunak sorrarazten dute egoera bat non itxuraz bateraezintzat jo ditzakegun proiektuak elkarren ondoan bizi diren. Beste hitz batzuetan esanda, diskriminazioaren kontrako printzipioa, merkataritzaren alorreko konpromiso aldeanitzen ikur bihurtu dena, ez dator bat eskualde-mailako zenbait akordiorekin, eta arazoak planteatzen ditu, ekonomiaren arlo batzuen gaineko babesarekin bateratzeko, talde erregional bereko herrialdeei eskainitako lehentasunezko baldintzekin, eta hortik kanpo geratzen diren besteekiko bereizkeriarekin (Calvo, 1994; Bhalla & Bhalla, 1997).

Testuinguru honetan ez da harritzekoa zenbait adituren ezkortasuna akordio eta erakunde aldeanitz hauek duten gaitasunaren aurrean, bereziki, aipatutako XXIV. artikuluko ospetsuari dagokionez. Ikuspegi honetatik, GATT eta MMEren inguruan sortutako sistemak izandako jarrera azpimarratu da, multilateralismoaren espirituekin nabarmenki kontraesankorrak izan diren talde erregionalen oso jarrera eta estrategia gutxi kritikatu baititu bere ibilbide luzean (Finger, 1993; Grilli, 1997).

Horrexegatik, gaur egun ezagutzen den ekonomia-bloke erregionalen ugaritzea eta beraien izaera ikusirik, eta aintzat hartuta lehen aipatutako bateraezintasun erlatiboa, ez du ematen merkatuen zabaltze orokor eta indiskriminatua, —multilateralismoaren ezaugarri nagusienetako bat— begien aurrean dugun errealitatea edo etorkizuneko interpretatzeko erarik egokiena denik. Beraz, oraingo eredu erregionalista gehienek erakutsitako portaeraren arabera, errazagoa da egoera hau ulertzea globalizazioarekiko alternatiba eta ordezeko eredu modura, ekonomia global bakarerrantz erdibidean geratzen den etapa gisa baino. Hau da, integrazioaren alorrean gaurdaino izandako esperientziak agerian uzten du eskualde-mailako ekonomia-talde gehienek interesa dutela zenbait merkatutako mugimenduak liberalizatzeko eta trukeak sustatzeko, baina hori dena kide diren herrialdeen artean soilik, munduko gainerako guztiak nolabait diskriminatuz.

Gero eta ohikoagoa da merkataritzaren alorreko muga-zergen murrizketetarako joera, bai eredu aldeanitzean zein eskualde-mailakoan, nabarmenki orokortua bada ere neurri babeszaleen erabilpena, bereziki arantzelen ordezekoak ugaritzen ari diren muga-zergetatik kanpoko tresnen bitartez. Izan ere, kuotak, esportazioetarako “borondatezko” murrizketek, anti-dumping izeneko neurriak, esportazioak sustatzeko laguntzak, hesi teknikoak (administrazioari edota osasunari lotutakoak) eta abar azken urteetako protekzionismo berriaren adierazle nagusitzat hartu beharko genituzke. Eta herrialde industrializatuek martxan ipinitako praktika horiek, besteak beste garapen-bideko ekonomien esportazioen aurka, erantzuna izan dute azken horien aldetik merkataritza-akordio eta talde erregionalen osaketan bidez, aipatutako diskriminazio horri aurre egiteko kontrapisu modura, eta egitura aldeanitzeko liberalizazio-prozesuaren alternatiba gisa, beraz.

Edozein modutan ere, gaur egun egon badaude eskualde-mailako zenbait talde, “erregionalismo berriaren” alorrekin identifikatuta, eta konpromezu baxukoak direlako edo merkataritza libreko eremuak baino atzeragoko etapetan egonik, GATT-MMEren inguruko arautegiarekin, antza, bateragarriagoak izan daitezkeenak. Izaera zabaleko talde erregional horien bateragarritasun-maila hau, edo ustezko bereizkeriarik eza, hala ere, ñabardura ugari eta eztabaida luzeak eskatzen dituen gaia da.

Era berean, esan beharra dago ekimen hauen inguruan integrazio-proiektu erregionaletan parte hartzen duten gobernuen pertzepzioa botereen kontrapisu gisa ulertu beharko litzatekeela, gainerako herrialde- eta eskualde-mailako taldeen aurrean euren interesak era egokiagoan defendatu nahian. Alegia, merkataritza libreko eremuen kasuan ere, oraintsu adierazten genuen bezala, taldetik kanpoko beste herrialde guztiekiko muga-zerga komunik ez dagoen arren, jatorri-arau zorrotz batzuen aplikazioak berdin antzeko ondorioak izan ditzake azken finean. Neurri batean, beraz, honek guztiak nolabaiteko babesa eta diskriminaziorako

tresnen erabilpena dakar, multilateralismoak bultzatzen duen mundu-mailako liberalizazioaren aldeko filosofiarekin modu desberdinetan talka egiten duena.

Erregionalismoaren irekiera-mailaren inguruko balorazioek eztabaida zabalera-ko bidea ematen badute ere, onartu beharra dago, edozein modutan ere, azkenaldian joera berri bat agertu dela testuinguru honetan, garapen-maila desberdineko partaidetza bateratua ekarri duena. Mugimendu honen zergatia bi zutabe nagusitan sostengatzen da: alde batetik, hegoaldeko herrialdeen interesa errenta-maila altuko merkatuetan eta oraindik zorrotz babestutako zenbait sektoretan euren esportazioen sarrera errazteko; eta bestetik, iparraldeko ekonomia industrializatuaren egitasmoa beraien eragin-zonaldeak osatu eta indartzeko, hazkunde ekonomikorako potentzialtasun handia duten herrialdeen inguruan. Egitura hau NAFTA eta APEC direlakoen kasuetan, adibidez, gera liteke islatuta (Calvo, 1994).

Erregionalismo-mota honez gain, azkenaldian beste zenbait ekimen ere ugaritu dira, neurri batean ildo antzekotik doazenak, errealitatean era diferenteetan gauzatzen diren arren. Hau da, garapen-bideko ekonomiak eta industrializatuak biltzen dituzten integrazio-proiektuak sustatu beharrean, ekimen honek merkataritza-akordioen ezarpena bilatzen du, iparraldean zein hegoaldean aurretik osatutako talde erregionalen artean.

Horixe bera izango litzateke Europako Batasunak hartutako norabidea bere lankidetzarako politikaren alorrean Loméren ostean zabalduetako aro berrian; Afrika, Karibe eta Pazifikoko (AKP) bere itunkideek osatutako talde erregionalekin merkataritza libreko eremuak sustatzeko, horien aldeko lehentasunezko merkataritza-harremanen ordeko gisa alde bietako liberalizazioa eskatzen duen eredia bultzatuz. EEBBei dagokienez, Latinoamerikako hainbat estaturekiko banakako akordioez gain, Bushek 1992an proposatutako "Ameriketarako Ekimena" izeneko egitasmoaren ondorengoa (ALCA) da azkenaldian ika-mika handiak sortu dituen, epe laburrean merkataritza libreko eremu bat sortu nahi baitu kontinente osorako.

Horrela beraz, tamaina diferenteko zonalde geografikoak barneratuta, eta iparraldeko zein hegoaldeko ekonomien partaidetzarekin kontatuz, etorkizun hurbilean aurrikusten den joerak zera iradokitzen du: mundu-mailako hiru ardatz nagusien inguruan (EEBB, Europako Batasuna eta Japonia) merkataritza-lotura zabalak ezarriko direla, horietako bakoitzak bere eragin-eremuak zabaldu eta finkatuguran bere periferiaren inguruan.

2.2. Erregionalismoa eta multilateralismoa garapenerako estrategia kontraesankor gisa?

Gaur egungo eskualde-mailako integrazio-prozesuen norabidearen inguruan, aurretik planteatutako bigarren galdera honek beste eztabaidagune batera garamatza, norabide horren egokitasuna jorratzeko. Beraz, gakoa ez litzateke ea talde erregionalen esperientziak, ongizate-maila hobea lortzeko asmotan, merkataritza-harremanen desarauketa globalerako bidea zabaltzen duen ala ez, baizik eta zabaldu beharko lukeenetz. Beste hitz batzuetan esanda, nazioarteko erlazio ekonomikoaren liberalizazioaren testuinguruan, zein da ongizate-maila maximotzeko tresnarik aproposena, batez ere, garapen-bideko ekonomien kasuan: mundu-mai-

lako eredu aldean, ala eskualde-mailako taldeak osatzea eta indartzea? Beti, jakinda, azken horietan zenbait merkatutako fluxuak liberalizatu egiten direla kideen artean, horrek guztiak gainerako guztien nolabaiteko diskriminazioa badakar ere.

Lehenengo aukeraren aldekoek, GATT-MMEren egitura helburu horretarako tresnarik egokien modura identifikatu dute, eta nahiz eta historikoki talde erregionalak sortzeko inongo jarrera baikorrik ez defendatu, apurka-apurka euren diskurtsoa eraldatzen joan dira, bai garapen-bideko ekonomietan bai industrializatueta eskualde-mailako integrazioa gero eta interes handiagoa hartzen ari dela ikusita. Orainsu aipatutako faktoreez gain, beste batek ere izan du nolabaiteko eragina zentzu horretan; hori gertatzen da begi-bistako bihurtzen denean ekonomia-partaideen kopurua zenbat eta txikiagoa izan orduan eta arazo gutxiago agertuko direla merkatu desberdinak desarautzeko negoziaketak burutzen direnean. Pentsaera-adar horren barruko ideiarik funtsezkoena —Bretton Woodseko erakundeek ordezkaturia— zera da: erregionalismotik bultzatutako prozesu liberalizatzaileak oso ondo etorriak dira, baldin eta euren azken helburu nagusia mundu osora beraien merkatuak irekitzea bada.

Merkataritzaren liberalizaziorako estrategia kanpo-sektorera bideratzea eskatzen du testuinguru honek guztiak; hau da, esportazioak ordezkatzekoa, garai batean garapen-bideko ekonomien arteko integrazio-proiektuetan nahiko orokortuta zegoen inportazioak ordezkatzeko eredu esku-hartzailearen alternatibagisa. Ikuspegi honetatik ateratzen den ondorio nagusia zera da: hegoaldeko ekonomien arteko ekimen erregionalisten porroten zergatia inportazioak ordezkatzeko industrializazio-ereduan bilatu beharko litzateke, horrek *merkataritza-desbideraketa* deiturikoa sortzen baitu, beraien kideak normalean errenta-maila baxukoak izanik, euren arteko merkataritza-harremanak sustatzen saiatzen baitira, munduko gainerako beste ekonomien kaltean (De Melo & Panagariya, 1992; Bhagwati, 1993; Foroutan, 1993; Grilli, 1997).

Eta horrexegatik, hain zuzen, errealtatearen interpretazio horren ildotik, kideen arteko konpromiso-maila handia lortzen duten talde erregionalek beste guztiak nolabait baztertzen dituztela kontsideratzen da, eta horrek, “second best” motako aukera bat den aldetik, ongizate-mailarik altuena eskuratzeko modurik ematen ez duela pentsatzen da. Horrela, erregionalismo berri eta irekiaren aldeko apustuak maila erregionaleko liberalizazio-prozesu tradizionalen egokitzea proposatzen du, diskriminaziorik gabeko dinamika desarautzaile aldean baterantz pixkanaka-pixkanaka hurbiltzen joan ahal izateko.

Beraz, zentzu horretan, analisi honetan oinarrituta, arrazoizkotzat hartu beharko genuke ekoizpenaren arlo desberdinetako lankidetzaren garrantzia, edo zorrotasun gutxiko erregionalismo malguarena azpimarratzea, horiek ez baitute indartzen aipatutako ekimenen izaera erregionala, eta ez baitituzte ixten maila globaleko dinamika baterako ateak (Radelet, 1997).

Aldiz, gobernu gehienek talde erregionalen osaketaren aldeko jarrera izatea, euren interes kolektiboaren defentsaren ikuspuntutik, gainerako herrialde guztiek erraz ulertzekoa bada ere, nazioarteko mugak erabat irekitzeak zalantza handiak sortzen ditu hainbat ekonomitako gobernu-ordezkarientzat, batez ere, azken

horien jarduera ekonomiko nagusiak lehiakortasun gutxikoak direnean, eta, nazioarteko merkatuenpean egonda, prezioen gorabehera handiak izaten dituzten lehen sektoreko esportazioetan gehiegi espezializatuta daudenean. Horiexek dira, era horretan, garapen-bideko herrialdeetan GATT-MMEren inguruko merkataritza aldeanitzaren liberalizazioak dituen ustezko onurei buruz azkenaldian planteatu den eztabaidaren zenbait nondik norako.

Mundu-mailako politika merkatuzaleen aldeko argudiotzat hartuta, neurriok bultzatzen dituzten nazioarteko erakundeez gain, aditu batzuek defendatu dute Sahara azpiko Afrikaren bazterketaren gakoa nazioarteko testuinguruan bere merkatuak erabat irekitzeko erresistentzian datzala (Easterly, 1996; Maasdorp, 1996). Aitzitik, beste ikuspegi batzuek azpimarratzen dute ekonomia afrikarren arazoak ez duela inongo zerikusirik liberalizazio eta desarauketarekin, baizik eta produkzio-ahalmenaren hazkundearekin. Zentzu horretan, lehiakortasun gutxikoa edo sortu berria den industriarentzako trantsizio-epealdi batean, giza baliabideen gara-pena ahalbideratuko duen industria-politikaren eta ekoizpenaren arlo guztiei trata-mendu bera emango ez dien liberalizazio-estrategia baten eskutik helduko dira konponbideak (UNCTAD, 1998).

Gobernu hauen beldur nagusietako bat, merkataritzaren irekiera orokortzen ari den gaur egungo testuinguruan, munduko ekonomian gero eta baztertuago gertatzea da. Panorama horren aurrean, ukazina da zenbait lehengairen eta lan-esku trinkoko manufakturaren gaineko babes-neurriak iparraldeko herrialdeetan desagertuko balira, horrek hegoaldeko ekonomia askoren alde jokatu lukeela. Horrek, ordea, ez du derrigorrez esan nahi bi norabideko liberalizazio-prozesuak, merkatu lokalen defentsarik eza agerian utziz, ekonomiarik ahulentzat onura argiak ekarriko lituzkeenik (PNUD, 1997).

Izan ere, benetan deigarria da egiaztatzea ekonomia industrializatu gehienek merkataritzaren irekiera oso modu kontrolatu eta moderatuan egin duten bitartean, garapen-bidekoen gobernuei horretarako, epe laburrean, neurri desarautzaile erradikalak inplementatu behar dituztela aholkatu izana, beraien ahulezia eta lehen sektoreko gehiegizko espezializazioa aintzat hartu barik. Alegia, beste muturrera joanda, ez da erraz defendatzekoa liberalizazio ekonomikoa berez kaltegarria denik, bide hori hartzten duten ekonomientzat hainbat faktoreren araberakoak baitira efektuak; besteak beste, prozesuaren erritmoa, irekitze-maila, azpiegitura, giza baliabideak, industria-politika, teknologia eta abarren gaineko neurri osagarriak aipatu behar dira, beti ekonomia bakoitzaren ezaugarri, beharizan eta gabeziataraz egokituz horiek guztiak (Khor, 2000a,b; Keet, 1999, 2000; Davies, 2000).

Ildo honetatik, globalizazioaren, erregionalismoaren eta liberalizazioaren inguruko azterketak honako hau defendatzera eramane du zenbait aditu: garapen-bideko ekonomientzat trabarik gabeko merkataritza ezin dela inoiz irtenbiderik egokiena izan, politika komertzialaren alorrean arautzeko tresnarik eta kontrolirik egon ezean (Bhalla, 1998).

50 eta 60ko hamarkadetan, inportazioak ordezkatzeko ereduan eta esku-hartze publikoan gehiegizko konfiantza jarri zen; gaur egun, aldiz, gero eta ageriago dago askok neurritz kanpoko fedea izan zutela, merkatuaren indarrean eta irekieraren

ustezko onuretan, garapen-bideko ekonomiei horrek guztiak aukera ugari eta etorkizun baikor baterako bideak zabalduko zizkielakoan. Gaur egungo liberalizazio-olatu unibertsaltasunzale hau erakusten ari da gobernu eta talde erregionalek euren ezaugarri eta lehentasunen arabera garapen-eredu propio bat definitzeko duten gaitasun eta posibilitateen kaltean jokatzen duela sarritan dinamika horrek (Mkandawire & Soludo, 1999; Rodrik, 1999, 2000, McCarthy, 2000).

Alde horretatik, Uruguayko errondan hitzartutako akordioek ekonomiarik defaboratuenetan izan ditzaketen ondorioek eragindako ardura adierazi dute azkenaldiko lan ugari. Bereziki, kontinente afrikarra omen da liberalizazio aldeanitzak epe laburrean izan ditzakeen ondorioen galtzaile nagusietako bat, esportazioen galerari eta horri lotutako ongizate-mailari begira. AKP izeneko herrialdeek orain arte Loméko hitzarmenen barruan jasotzen zituzten onurei dagokienez, GATT-MMEren esparruko muga-zergen murrizketak merkatu europarrean sartzeko ekonomia horien pribilegioak gutxitu egingo ditu, Latinoamerikako eta Asiako beste hainbaten aurrean, lehentasunezko erregimen hori Cotonouko itun berriaren bitartez desagertu arte. Elikagaien salneurriei dagokienez, nekazaritzaren subentzioak eta mota askotako laguntzak kentzen doazen neurrian, prezio horietan aurrakusten den gorakadak ondorio larriak izan ditzake elikagaiak inportatzen dituzten hainbat herrialderentzat, bereziki, errenta baxukoentzat (Robson, 1996; Gibb, 1998; Buthelezi, 2000).

Baina kalte horietatik haratago, aditu ugariak beste era bateko beldur eta mesfidantzak ikusten ditu desarauketa aldeanitzerako sistema honetan: GATT-MMEren egitura barruko negoziaketak gardentasunik eta partaidetzarik gabekoak izan direla, eta beraien emaitzak ekonomia aberatsenen interesen aldekoak izan diren pertzepzioa; garapen-bideko hainbat herrialderen giza zein aurrekontu-baliabideen eskasia Genevan edo bestelako nazioarteko batzar eta gailurretan behar bezalako ordezkariak izan ahal izateko; MMEren “gai berriak” (konkurrentziaren inguruko politika, erosketa publikoak, lan-baldintzei buruzko arauak, edota ingurumenaren eta inbertsioen gaineoak...) izendatuak izan diren horiek iparraldeko ekonomien aldetik euren merkatuak babesteko belaunaldi berriko hesi edo traba gisa erabiliko diren beldurra (Page *et al*, 1999; Gakunu, 2000; Tevera, 2000; Keet, 1999, 2000; Zabalo, 2000; Hartzenberg, 2000a,b; Hess, 2000).

Horrexegatik, akordio aldeanitz hauen izaera ustez diskriminaziorik gabekoa, eta neutraltasunez, inpartzialtasunez eta aseptikotasunez beterikoa izan arren, ikuspegi honetatik, MMEren lana gero eta gehiago interpretatzen da enpresa transnazionalen interes globalak eta ekonomia industrializatu aberatsenen interes nazionalak babesteko eta bermatzeko tresna politiko modura. Erakunde honetako prozeduren eta praktiken erreforma sakona egiten ez den bitartean, zaila ematen du hegoaldeko herrialdeek harrera onik egitea bere ekimenei.

Eta errealtatea aztertzeko parametro hauen barruan, eszeptikoenek logikotzat hartu beharko lituzkete egindako proposamenak, besteak beste, “merkataritza-hazkunde” paradigma desmitifikatzeko, nazioarteko merkatu ezegonkorren menpekotasun handia duen lehengaien esportazio-eredua desagerrarazteko, buroaskitasun-maila handiagoak sustatzeko edota gaur egun nazioarteko merkataritzaren alorrean indarrean dagoen arautegi aldeanitzean jarritako konfiantza

zalantzan jartzeko; batik bat, sistema honek ekonomiarik ahulenen garapenerako estrategiak kaltetzen jarraitzen duen bitartean (Keet, 1999, 2000; Zabalo, 2000; Khor, 2000a,b).

Baina merkataritza antolatzeko sistema aldeanitz honen muga eta desabantailetatik haratago, ikuspuntu honetatik garapen-bideko ekonomien arteko talde erregionalen eginkizuna duintzeak duen garrantzia azpimarratu ohi da, hori lehenengoaren aurrean alternatiba nagusi bihurtzen delako; erregionalismoa ustez denontzako onura ekarriko duen merkataritzaren hedapen globalerako oztopo gisa ulertzen duten ohiko balorazioei aurre eginez. Halaber, merkataritza baino askoz ere alor gehiago biltzen dituen integratzaile hurbilpena azpimarratu beharra ikusten da azterketa-molde hauetatik, mota horretako ekimen erregionalistak lanabes bete eta eraginkor bihurtu nahian garapenaren sustapenerako (Hettne, 1999; Amín, 1999; Odén, 1999; Keet, 1999, 2000).

Horrela, beraz, gaur egun ezagutzen dugun antolaketa-egitura aldeanitzaren barruan ekonomiarik desfaboratuenean jasan behar izaten dituzten gutxiagotasun-baldintzak eta euren interesen alde egiteko zailtasunak nabarmenak izanik, hegoaldeko gobernuen ikuspegitik, talde erregionalen sorrera eta indartzea begien aurrean dugun ekonomiaren munduratze neoliberalaren aurrean garapen-estrategia alternatibotzat hartzeak ez luke inor ustekabeen harrapatu beharko.

Erreferentzia bibliografikoak

- Amín, S. (1999): "Regionalization in Response to Polarizing Globalization", in Hettne, B.; Inotai, A.; Sunkel, O. UNU / WIDER, *Globalism and the New Regionalism*, MacMillan Press Ltd, Londres.
- Bhagwati, J. (1993): "Regionalism and multilateralism: an overview", in De Melo, J. & Panagariya, A., *New dimensions in regional integration*, Centre for Economic Policy Research, Cambridge University Press.
- Bhalla, A.S. (1998): *Globalisation, Growth and Marginalisation*, IDRC, Ottawa.
- Bhalla, A.S. eta Bhalla, P. (1997): *Regional blocks. Building blocks or Stumbling blocks?*, MacMillan Press Ltd., Londres.
- Buthelezi, S. (2000): "Globalisation and the process of democratisation", in Nabudere, D.W. AAPS books, *Globalisation and the post-colonial African State*, Harare.
- Calvo, H. (1994): *Integración económica y regionalismo*, Centro de estudios Ramón Areces S.A., Madril.
- Davies, R. (2000): "Prospects for development integration in SADC in the context of emerging trade relations in the 21st century", *SARIPS Conference: Emerging Trade Relations in the 21st Century*, Harare.
- De Melo, J. & Panagariya, A. (1993): *New dimensions in regional integration*, Centre for Economic Policy Research, Cambridge University Press.
- Finger, J.M. (1993): "GATT's influence on regional arrangements", in De Melo, J. & Panagariya, A., *New dimensions in regional integration*, Centre for Economic Policy Research, Cambridge University Press.
- Foroutan, F. (1993): "Regional integration in Sub-saharan Africa. Past experience and future prospects", in De Melo, J. y Panagariya, A., *New dimensions in regional integration*, Centre for Economic Policy Research, Cambridge.
- Founou-Tshuigoua, B. (1995): "El Africa Subsahariana. La cuartomundización en crisis", in Amín, S. y Gonzalez, P., *La nueva organización capitalista mundial vista desde el Sur*, Anthropos, Bartzelona.

- Gakunu, P. (2000): "ACP-EU trade relations in the 21st Century", *SARIPS Conference: Emerging Trade Relations in the 21st Century*, Harare.
- Gibb, R. (1998): *Southern África in transition: prospects and problems facing regional integration*, Modern African Studies, United Kingdom.
- Grilli, E. (1997): "Multilateralism and regionalism: a still difficult coexistence", in Faini, R. and Grilli E., *Multilateralism and regionalism after the Uruguay Round*, MacMillan Press Ltd, Londres.
- Hartzenberg (2000a): "Ministerial Conferences and new issues in the WTO", in Hartzenberg, T., *SADC-EU trade relations*, Sapes Books, Harare.
- , (2000b): "The "New Issues" in international trade: an expanding WTO agenda", *SARIPS Conference on Emerging Trade Relations in the 21st Century*, Harare.
- Hess, R. (2000): "Strategic options for SADC countries in preparation for the new WTO post Seattle initiatives" *SARIPS Conference on Emerging Trade Relations in the 21st Century*, Harare.
- Hettne B. (1999): "Globalization and the new regionalism: The second great transformation", in Hettne, B.; Inotai, A.; Sunkel, O. UNU / WIDER, *Globalism and the New Regionalism*, MacMillan Press Ltd, Londres.
- Keet, D. (1999): "Globalisation and regionalisation, contradictory tendencies? Counteractive tactics? or strategic possibilities?", *The Foundation for Global Dialogue. FDG Occasional Paper 18*.
- , (2000): "The implications and challenges of the WTO regime in relation to development co-operation and integration in Southern Africa", *SARIPS Conference on Emerging Trade Relations in the 21st Century*, Harare.
- Khor, M. (2000a): "Repensando la liberalización y reformulando la OMC", *Revista del Sur*, enero/febrero. www.revistadelsur.org.uy.
- , (2000b): "Globalization and the South: some critical issues", UNCTAD, *Discussion Papers*, **147**, Geneva, www.unctad.org.
- Krugman, P. (1993): "Regionalism versus multilateralism: analytical notes", in De Melo, J. & Panagariya, A. *New dimensions in regional integration*, Centre for Economic Policy Research, Cambridge University Press.
- McCarthy, C. (2000): "Prerequisites for effective regional trade", *SARIPS Conference on Emerging Trade Relations in the 21st Century*, Harare.
- Mkandawire, T. & Soludo, C. (1999): *Our continent, our future. African perspectives on structural adjustment. Council for the Development of Social Science Research in Africa (CODESRIA)*, Africa World Press, Inc. Eritrea.
- Ninsin, K.A (2000): "Globalisation and the future of Africa", *AAPS Occasional Paper Series*, **Vol. 4, 1**, Harare.
- Odén B. (1999): "New Regionalism in Southern Africa: Part of or Alternative to the Globalization of the World Economy?", in Hettne, B.; Inotai, A.; Sunkel, O. UNU / WIDER, *Globalism and the New Regionalism*, MacMillan Press Ltd, Londres.
- Page, S. et al. (1999): *SADC-EU Trade Relations in a Post Lomé World*, Overseas Development Institute, Londres.
- PNUD (1997): *Informe sobre el desarrollo humano*, New York.
- , (1999): *Informe sobre el desarrollo humano*, New York.
- , (2001): *Informe sobre el desarrollo humano*, New York.
- Radelet, S. (1997): *Regional Integration and Cooperation in Sub-Saharan Africa: Are formal trade agreements the right strategy*, United States Agency for International Development EAGER.
- Robson, P. (1996): "The changing international economic system", in Maasdorp, G., *Can South and Southern Africa become globally competitive economies?*, MacMillan Press Ltd, Britainia Handia.

- Rodrik, D. (1999): "The new global economy and developing countries. Making openness work", *ODC Policy Essay* **24**.
- , (2000): "How far will international economic integration go?", *Journal of Economic Perspectives*, 14. liburukia, 1, Winter.
- Sutcliffe, R. (1998): *100 imágenes de un mundo desigual*, Intermón, Bartzelona.
- Tevera, D. (2000): "WTO built in agenda and implementation issues", *SARIPS Conference on Emerging Trade Relations in the 21st Century*, Harare.
- Tsie, B. (2000): "Globalization and regional integration in Southern Africa: Synergy or Rivalry?", *SARIPS Conference on Emerging Trade Relations in the 21st Century*, Harare.
- UNCTAD (1997): *Trade and Development Report*, Geneva.
- , (1998): *Trade and Development Report*, Geneva.
- , (1999): *Trade and Development Report*, Geneva.
- , (2001): *World Investment Report*, Geneva.
- Zabalo, P. (2000): *La organización mundial de comercio, paradigma de la globalización neoliberal*, Hegoa. Cuadernos de trabajo, Bilbo.